BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA BIZKAIKO GOLF FEDERAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA 2023/2024 DENBORALDIAN ESKOLA KIROLA KANPAINAREN BARRUAN SARTZEN DIREN KIROL JARDUERAK ETA GOLF SUSTATZEKO JARDUERA GARATZEKO.

Alde batetik, Leixuri Arrizabalaga Arruza andrea, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatua; Arrizabalaga andreak honako arau hauek ematen dizkioten eskumenak baliatuz dihardu: batetik, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Araua, eta, bestetik, 131/2020 Foru Dekretua, abenduaren 29koa, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duena.

Eta bestetik, Edorta Rahm Gallarzagoitia jn., Bizkaiko Golf Federazioko burua; Rahm jaunak federazioaren izenean (IFZ G-48459705) eta haren ordezkari gisa jardun du, 2007ko ekainaren 25eko BAOn argitaratutako Estatutuekin bat.

Bi alderdiek LANKIDETZA HITZARMEN hau egiteko legezko gaitasun nahikoa aitortu diote elkarri, eta horretarako, honako hau

ADIERAZTEN DUTE

LEHENA.- Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legeak 75.1 artikuluan dio eskola-adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programak lurralde historikoetako foru-organoek onartuko dituztela urtero, eta bideratuta egongo direla prestakuntza integralera, nortasunaren garapen orekatura eta geroago jarduera fisikoa eta kirola egiten jarraitzea ahalbidetuko duten baldintza fisikoak eta osasun-baldintzak lortzera.

Bestalde, aipatutako martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 39.1.f) artikuluak dio kirol-federazioek, bestak beste, honako administrazio-funtzio publiko hau beteko dutela: Administrazio publikoarekin batera parte hartzea eta elkarlanean aritzea eskola-adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programetan. 76.2 artikuluak dio kirol-federazioak izango direla, funtsean, programa horiek antolatzeko eta gauzatzeko beharrezkoa den laguntza teknikoaz eta lankidetzaz arduratuko diren erakundeak hala eskatzen zaienean.

Gainera, urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 14.2 artikuluak, Euskal Kirol Federazioenak, zera dio: dagokion administrazioaren irizpidearen, babesaren

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y LA FEDERACIÓN VIZCAÍNA DE GOLF PARA EL DESARROLLO DE LAS ACTIVIDADES DEPORTIVAS INCLUIDAS EN EL DEPORTE ESCOLAR Y LA PROMOCIÓN DEL GOLF EN BIZKAIA EN LA TEMPORADA 2023/2024.

De una parte, Dña. Leixuri Arrizabalaga Arruza, Diputada Foral titular del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, actuando conforme a las facultades conferidas por la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre elección, organización, régimen y funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia y por el Decreto Foral 131/2020, de 29 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte.

Y, de otra, D. Edorta Rahm Gallarzagoitia, como Presidente de la Federación Vizcaína de Golf (NIF G-48459705), actuando en nombre y representación de la federación, en virtud de sus Estatutos publicados en el BOB de fecha 25 de junio de 2007.

Las dos partes se reconocen mutuamente capacidad legal suficiente para celebrar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, y a tal efecto

MANIFIESTAN

PRIMERO.- El artículo 75.1 de la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco, señala que los programas de actividad física y deporte en edad escolar serán aprobados anualmente por los órganos forales de los territorios históricos y estarán orientados a la formación integral, al desarrollo armónico de su personalidad, a la consecución de unas condiciones físicas y de salud que posibiliten la práctica continuada de la actividad física y del deporte en edades posteriores.

Por su parte, el artículo 39.1.f) de la citada Ley 2/2023, de 30 de marzo, establece que las federaciones deportivas ejercerán, entre otras, como función pública de carácter administrativo, la participación y colaboración con la Administración pública en el desarrollo de sus programas de actividad física y deporte en edad escolar. El artículo 76.2 señala que las federaciones deportivas serán, básicamente, las entidades encargadas de la asistencia técnica y colaboración en la organización y ejecución de tales programas cuando así se les solicite.

Además, el artículo 14.2 del Decreto 16/2006, de 31 de enero, de las Federaciones Deportivas del País Vasco señala que bajo los criterios, tutela y control de

eta kontrolaren pean, kirol federazio horiek, eskuordetzan, zenbait administrazio-funtzio publiko betetzen dituzte, hala nola Administrazio publikoari laguntzea haren kirol programetan, eta haietan parte hartzea; bereziki, honako hauetan: goi mailako kirolarientzako programetan; eskola kiroleko programetan; emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzeko programetan; eta administrazio publikoak antolatzen dituen eta interes orokorrekoak diren programetan.

Halaber, urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 16.1 artikuluak eransten du lurraldeko federazioek euren funtzioak Lurralde Historikoetako foru organoekiko lankidetzan beteko dituztela. Horretarako, elkarrekin lankidetza hitzarmenak egin ahal izango dituzte, helburuak, kirol programak, aurrekontuak eta eskuordeturiko funtzio publikoei zuzenean loturiko gainerako alderdiak zehazteko. Hitzarmen horien izaera juridiko administratiboa izango da.

2013ko abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemaileak onartu zuen Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bateginaren bosgarren xedapen gehigarriak, 2. zenbakian, hau ezartzen du: Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmenak egin ahal izango ditu zuzenbide pribatuari loturiko pertsona fisiko eta juridikoekin, baldin eta hitzarmenaren helburua ez badago jasota herri administrazioen kontratuak arautzen dituen legerian edo administrazio-arau berezietan.

Hitzarmen hau Sektore Publikoko Kontratuen 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik kanpo dago, haren edukia kontuan hartuta. Izan ere, lege horren 6.2 artikuluan adierazten denez, haren aplikazio-eremutik kanpo geratuko dira sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuaren peko pertsona fisiko zein edo juridikoekin egiten dituzten hitzarmenak, haien edukia ez badago sartuta lege honetan edo nahiz administrazio-arau berezietan araututako kontratuen edukien artean.

Bestalde, aurrerapen ekonomikoa eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko aurrerapausoak ematea, eta, bide horretan, hainbat urte daramatza berdintasunaren arloan lanean. Ildo horretan, Hitzarmen honek genero-ikuspegia jasotzen du, bai berau prestatzeko orduan bai beronen aplikazioan, kontuan hartuta zer adierazten den Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan.

la Administración correspondiente, dichas federaciones deportivas ejercen, por delegación, entre otras, la función pública de carácter administrativo consistente en la participación y colaboración con la Administración pública en el desarrollo de sus programas deportivos, en especial en los programas para deportistas de alto nivel, en los programas de deporte escolar, en los programas de promoción de igualdad de hombres y mujeres y en aquellos programas de interés general que organice aquella.

Asimismo, el Decreto 16/2006, de 31 de enero añade en su artículo 16.1 que las federaciones territoriales desarrollarán sus funciones en colaboración con los órganos forales de los Territorios Históricos. A tal efecto, podrán suscribir entre sí convenios de colaboración al objeto de determinar los objetivos, programas deportivos, presupuestos y demás aspectos directamente relacionados con las funciones públicas delegadas. Tales convenios tendrán naturaleza jurídico-administrativa.

La Disposición Adicional Quinta del Texto Refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, aprobado por el Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, en su apartado 2 señala que la Diputación Foral de Bizkaia podrá celebrar convenios con personas físicas o jurídicas de derecho privado, siempre que su objeto no esté comprendido entre los comprendidos en la legislación reguladora de los contratos de las Administraciones Públicas, o en normas administrativas especiales.

El presente convenio se encuentra excluido como tal, y en función de su contenido, del ámbito de aplicación de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, dado que, tal y como señala su artículo 6.2 quedan excluidos del ámbito de dicha Ley los convenios que celebren las entidades del sector público con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales.

Por otra parte, y para lograr el progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres y para ello lleva numerosos años trabajando ese campo. En esta línea, este Convenio incorpora la perspectiva de género tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres y en la Norma foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

BIGARRENA.- Eskola Kirola programak 2023/2024 denboraldian izango duen arautegia ebazten duen abuztuaren 23ko 126/2023 Foru Dekretuaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio Bizkaiko Lurralde Historikoko eskola-umeentzako kirol-jarduerak antolatzea 2023/2024 denboraldian zehar.

SEGUNDO.- Que corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, en virtud del Decreto Foral 126/2023 de 23 de agosto, por el que se dicta la normativa reguladora del Programa de Deporte Escolar de Bizkaia durante la temporada 2023/2024, organizar las actividades deportivas destinadas a las y los escolares del Territorio Histórico de Bizkaia durante la temporada 2023/2024.

HIRUGARRENA.- Hitzarmena sinatzen duen federazioak onartuak ditu federazio-estatutuak eta -erregelamenduak, kontuan harturik zer xedatzen duen 2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak, Euskadiko Kirol Federazioenak.

TERCERO.- Que la federación firmante tiene aprobados los estatutos y reglamentos federativos de acuerdo con lo dispuesto por el Decreto 16/2006, de 31 de enero, de las Federaciones Deportivas del País Vasco.

LAUGARRENA.- Erakundeak adierazten du ez duela Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan jasotako debekurik.

CUARTO.- Que la entidad declara que no se halla incursa en ninguna de las prohibiciones recogidas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

BOSGARRENA.- Erakundeak ados daude hitzarmenaren edukiarekin, eta hurrengo klausulen arabera formalizatu dute.

QUINTO.- Que, habiéndose alcanzado un acuerdo entre las entidades convenientes sobre el alcance de dicho Convenio, lo formalizan con sujeción a las siguientes

## KLAUSULAK

LEHENA.- Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak eta Bizkaiko Golf Federazioak sinatzekoa den lankidetza-hitzarmen honen helburua da 2023/2024 denboraldiko Eskola Kirola programan jasotako jarduerak garatzea. Bizkaiko Foru Aldundiaren abuztuaren 23ko 126/2023 Foru Dekretuak arautzen ditu jarduerok, eta hitzarmen honi, zehazki, eskola-ume kirolarien Golf kirol-jarduera dagokio.

BIGARRENA.- Federazioak konpromisoa hartzen du, hain zuzen ere, ondoren aipatzen diren jarduerak garatzeko, 2023/2024 denboraldian, Golf kirol-jarduerari dagokionez:

1. Irakaskuntza Jarduerak (Hastapen Jarduerak):

a) Hastapen ikastaroa eskola adinean diren BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST (275) ikaslerentzat.

b) BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST (275) eskola-umerentzako landa-eskola.

HIRUGARRENA.- Hitzarmen hau formalizaturik, Bizkaiko Golf Federazioak honako betebehar hauek betetzeko konpromisoa hartzen du:

1.- Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteari buruzko Erantzukizunpeko Adierazpena sinatzea (hitzarmen honen I. eranskinean doa).

## CLÁUSULAS

PRIMERA.- El objeto del presente convenio de colaboración a suscribir entre el Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia y la Federación Vizcaína de Golf es el desarrollo de las actividades recogidas en el programa de Deporte Escolar para la temporada 2023/2024 reguladas en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 126/2023 de 23 de agosto con relación a la práctica deportiva del Golf para deportistas en edad escolar.

SEGUNDA.- En concreto, la Federación se compromete a desarrollar, durante el periodo 2023/2024, las siguientes actividades en la modalidad deportiva de Golf:

1. Actividades de Enseñanza (Act. Iniciación):

a) Cursos de Iniciación al Golf para DOSCIENTOS SETENTA Y CINCO (275) escolares.

b) Clase en campo para DOSCIENTOS SETENTA Y CINCO (275) escolares.

TERCERA.- Con la formalización del presente Convenio la Federación Vizcaína de Golf se compromete a cumplir con las siguientes obligaciones:

1.- Suscribir la Declaración Responsable de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia que se acompaña como Anexo I al presente Convenio.

2.- Federazioak berak edo hirugarren batzuek haren izenean sortutako behin betiko edozein dokumentu idatzitan edo digitaletan hizkuntza ez-sexista erabiltzea; hori bat dator Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuarekin eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauarekin. Era berean, erakundeak emakumeen eta gizonen tratamendua zainduko du, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzeko idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan.

2.- Hacer un uso no sexista del lenguaje en cualquier documento definitivo escrito o digital, generado por la propia Federación o por terceros en su nombre, todo ello al amparo del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres y de la Norma Foral 4/2018 de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Asimismo, la entidad velará porque el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y por el fomento de una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.

3.- Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 44. artikuluan hizkuntza ofizialei buruz xedatutakoa betetzea. Artikuluak xedatzen duenez, kirol-federazioek bi hizkuntza ofizialen erabilera errespetatu behar dute dokumentu ezberdinetan, hala nola, federazio-lizentzietan, txarteletan, agirietan, estatutuetan, erregelamenduetan eta abarretan.

3.- Cumplir con lo dispuesto por el artículo 44 de la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad Física y del Deporte del País Vasco sobre lenguas oficiales. El artículo dispone que las federaciones deportivas quedan obligadas a respetar la utilización de las dos lenguas oficiales en documentos como las licencias federativas, tarjetas, carnés, estatutos, reglamentos, etc.

4.- Hitzarmen honetan jasotako jarduerak aipatzen diren dokumentazio eta akta guztietan adierazi beharko da Bizkaiko Foru Aldundia dela antolatzailea; horrez gainera, irudi korporatiboa agertu behar da, zeina Aldundiak berak emango duen.

4.- En toda la documentación y actas en que se haga mención de las actividades contempladas en el presente convenio deberá reflejarse que la organización corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, y deberá figurar la imagen corporativa que la propia Diputación facilitará.

5.- Behar bezala izendatuko du Federaziotik bertatik ikasleei zuzendutako kirol jardueren egitarauan lagunduko duen pertsona. Pertsona honek, jarduera guztiak koordinatzeaz gain, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Federazioaren arteko bitarteko bezala jardungo du. Izendapena idatziz egingo da, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuko Eskola Kiroleko Atalari jakinaraziko zaio, hitzarmen hau sinatu eta hamar (10) eguneko epean.

5.- Designar formalmente a la persona que se responsabilice de colaborar con el programa de Actividades Escolares desde la Federación, y que será quien asuma la coordinación de todas las actividades y la interlocución entre la Diputación Foral de Bizkaia y la Federación. La designación se hará por escrito y se comunicará a la Sección de Deporte Escolar del Servicio de Deportes del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia en un plazo de diez (10) días a partir de la fecha de la firma del presente convenio.

1., 2., 3., 4. eta 5. ataletan ezarritakoa betetzen ez badu, hitzartutako kontraprestazio ekonomikoaren % 100 galduko du gehienez. Kontraprestazioa ordainduta badago, itzultzeko exijituko zaio.

En el supuesto de incumplimiento de lo dispuesto en los apartados 1, 2, 3, 4 y 5, perderá hasta el 100 % de la contraprestación económica acordada. Se le exigirá, en el supuesto de que hubiera sido abonada, la devolución de la misma.

6.- Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren baimenik gabe ez du egingo 2009. urtetik aurrera jaiotako kirolarien aukeraketa edo kontzentraziorik (berdin da zein den helburua), hitzarmen honetan ezartzen diren jardueren barruan sartzen ez badira.

6.- No realizar ninguna selección ni concentración de deportistas que hayan nacido con posterioridad al año 2009, cualquiera que sea su finalidad, fuera de las actividades contempladas en el presente Convenio, si las mismas no cuentan con la autorización del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia.

Ezarritakoa betetzen ez badu, hitzartutako kontraprestazio ekonomikoaren % 75 galduko du. Kontraprestazioa ordainduta badago, itzultzeko exijituko zaio.

En el supuesto de incumplimiento, perderá el 75 % de la contraprestación económica acordada. Se le exigirá, en el supuesto de que hubiera sido abonada, la devolución de la misma.

7.- Ez ditu antolatu, aholkatu, lagundu edo babestuko 2009. urtetik aurrera jaiotako kirolariek parte hartzen duten kirol ekitaldiak, baldin eta Bizkaiko Eskola Kirola arautzen duen Foru Dekretuan ezarritakoa betetzen ez badute.

7.- No organizar, asesorar, colaborar ni patrocinar actos deportivos en los que participen deportistas que hayan nacido con posterioridad al año 2009, si los mismos no cumplen lo establecido en el Decreto Foral por el que se dicta la normativa reguladora del Deporte Escolar en Bizkaia.

Ezarritakoa betetzen ez badu, hitzartutako kontraprestazio ekonomikoaren % 75 galduko du. Kontraprestazioa ordainduta badago, itzultzeko exijituko zaio.

En el supuesto de incumplimiento, perderá el 75 % de la contraprestación económica acordada. Se le exigirá, en el supuesto de que hubiera sido abonada, la devolución de la misma.

8.- Eusko Jaurlaritzaren Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuan eta dekretu hau garatzen duen beste edozein arautan ezarritakoa urratzen duten jarduerak Bizkaian egitea eragotziko du, baita horien sustapena eta antolaketa ere.

8.- Impedir la práctica, promoción y organización en Bizkaia de actividades que contravengan lo establecido en el Decreto 125/2008, de 1 de julio, del Gobierno Vasco, sobre Deporte Escolar, así como cualquier otra normativa dada en el desarrollo de dicho Decreto.

Ezarritakoa betetzen ez badu, hitzartutako kontraprestazio ekonomikoaren % 75 galduko du. Kontraprestazioa ordainduta badago, itzultzeko exijituko zaio.

En el supuesto de incumplimiento, perderá el 75 % de la contraprestación económica acordada. Se le exigirá, en el supuesto de que hubiera sido abonada, la devolución de la misma.

9.- Hitzarmen honetan ezartzen diren jarduerak garatzeko beharrezkoak diren instalazioak erabiltzeko moduan egotea kudeatuko du eta, halaber, Kirolen Zuzendaritza Nagusiaren jarraibideei jarraiki, Bizkaiko Foru Aldundiaren publizitatea egingo du aipatutako jardueretan. Honek berarekin dakar publizitate euskarrien kudeaketa eta garraioa.

9.- Gestionar la disponibilidad de las instalaciones necesarias para el desarrollo de las actividades contempladas en el presente Convenio y, de acuerdo con las directrices de la Dirección General de Deporte, realizar la publicidad de la Diputación Foral de Bizkaia en dichas actividades, lo que incluye el transporte y gestión de los soportes publicitarios correspondientes.

Ezarritakoa betetzen ez badu, hitzartutako kontraprestazio ekonomikoaren % 100 galduko du. Kontraprestazioa ordainduta badago, itzultzeko exijituko zaio.

En el supuesto de incumplimiento, perderá el 100 % de la contraprestación económica acordada. Se le exigirá, en el supuesto de que hubiera sido abonada, la devolución de la misma.

10.- Hitzartutako jarduerak amaitzen direnean, Bizkaiko Golf Federazioa memoria bat aurkeztu behar izango du Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Kirol Zerbitzuko Eskola Kirolaren Atalean 2024ko ekainaren 3a baino lehen. Memorian gutxienez ondokoak jaso behar izango dira:

10.- Una vez finalizadas las actividades conveniadas la Federación Vizcaína de Golf deberá presentar una memoria, antes del 3 de junio de 2024, en la Sección de Deporte Escolar del Servicio de Deportes del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia y que contenga como mínimo:

1. Jardueren memoria, egindako guztia jasoko duena eta, bereziki:

- Irakaskuntza Jarduerak:

a) Jarduera mota.
b) Eduki teknikoak eta praktikoak.
c) Irakasleen zerrenda.
d) Partaideen zerrenda, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak emandako programaren arabera.

e) Iraupena.
f) Oharrak.

1. Memoria de actividades, que incluya todo lo realizado y en especial:

- Actividades de Enseñanza:

a) Tipo de Actividad.
b) Contenidos técnicos y prácticos.
c) Relación de profesorado.
d) Relación de participantes según programa facilitado por el Servicio de Deportes de la Diputación Foral de Bizkaia.
e) Duración.
f) Comentarios.

2. Memoria ekonomikoa, honako hau adieraziz:

a) Proiektuari egotzitako sarreren eta gastuen egoera-orria. 1. formularioaren arabera.
b) Gastu-partida bakoitzerako, jardueraren gastuen zerrenda sailkatua. 2.a), 2.b), 2.c) eta 2.d) formularioen arabera.
c) Diru-sarreren egoera-orria osatzen duen partida bakoitzerako, lortutako diru-sarreren edo dirulaguntzen zerrenda zehatza, zenbatekoa eta jatorria adierazita. 3.a) eta 3.b) formularioen arabera.
d) Proiektuari egotz dakiokeen beste diru-sarrerarik ez dagoela adierazten duen zinpeko aitorpena, ahalmen nahikoa duen erakundeko pertsona batek sinatua.
e) Kostu orokorrak eta/edo zeharkakoak banatzeko irizpideak adieraztea.
f) Entitateak egiaztagiri bat aurkeztu beharko du, kontratu txikirako administrazio-kontratazioari buruzko araudian ezarritako zenbatekoak gainditzen direnean egindako hiru hornitzaileen eskaintzak gutxienez egiaztatzen dituena, salbu eta, kontratu horren ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan ez badago hura ematen duen behar adina erakunde edo gastua eskaera egin aurretik egin bada. Memoria baten justifikatu beharko du pertsona edo erakunde hornitzailearen hautua aukeratua proposamen ekonomiko onuragarriena ez denean.

g) Fakturen eta ordainketak egiaztatzen dituzten dokumentuen kopiak aurkeztea.
h) Hala badagokio, jardueraren kostuaren gainetik lortutako balizko finantzaketa-soberakinaren identifikazioa.

Jardueren memoria eta memoria ekonomikoa aurkeztearen baldintzak ez badira betetzen, adostutako kontraprestazio ekonomikoaren % 100 galduko du. Kontraprestazioa ordainduta badago, itzultzeko exijituko zaio.

Era berean, justifikazio ekonomikoa hitzartutakoa baino txikiagoa bada, proportzionalki doituko da azken kontraprestazioa.

11.- Hurrengo denboraldirako jardueren proposamena 2024ko apirilaren 19a baino lehen bidali, hala badagokio.

12.- Bizkaiko Eskola Kiroleko app-a elikatzeko beharrezkoa den informazioa ematea eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan aritzea haren funtzionalitate guztiak modu egokian gara daitezen.

Ezarritakoa betetzen ez badu, hitzartutako kontraprestazio ekonomikoaren % 10 galduko du. Kontraprestazioa ordainduta badago, itzultzeko exijituko zaio.

2. Memoria Económica aportando lo siguiente:

a) Estado de ingresos y gastos imputados al proyecto conforme al formulario 1.
b) Para cada una de las partidas de gasto, una relación clasificada de gastos de la actividad conforme a los formularios 2.a), 2.b), 2.c) y 2.d).
c) Para cada una de las partidas que componen el estado de ingresos, una relación detallada de los ingresos o subvenciones obtenidas, indicando importe y procedencia conforme a los formularios 3.a) y 3.b).
d) Declaración jurada suscrita por una persona de la entidad con poder suficiente en la que se manifieste que no existen otros ingresos imputables al proyecto.
e) Indicación de los criterios de reparto de los costes generales y/o indirectos.
f) La entidad debe aportar justificación documental que acredite como mínimo las ofertas de los tres diferentes proveedores realizadas cuando se superen las cuantías establecidas en la correspondiente normativa de contratación administrativa para el contrato menor, salvo que por las especiales características del mismo no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo presten o que el gasto se haya realizado con anterioridad a la solicitud. Deberá justificar en una memoria la elección de la persona o entidad proveedora cuando la misma no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.
g) Aportación de copias de las facturas y de los documentos que soporten los pagos.
h) Identificación, en su caso, del posible exceso de financiación obtenido sobre el coste de la actividad.

En el supuesto de incumplimiento, en la presentación de la memoria de actividades y de la memoria económica, perderá el 100 % de la contraprestación económica acordada. Se le exigirá, en el supuesto de que hubiera sido abonada, la devolución de la misma.

Así mismo, si la justificación económica fuera menor de lo conveniado, se ajustará proporcionalmente la contraprestación final.

11.- Enviar, en su caso, una propuesta de actividades para la próxima temporada antes del 19 de abril de 2024.

12.- Suministrar la información necesaria para la alimentación de la app de Bizkaiko Eskola Kirola y colaborar con la Diputación Foral de Bizkaia para el correcto desempeño de sus funcionalidades.

En el supuesto de incumplimiento, perderá el 10 % de la contraprestación económica acordada. Se le exigirá, en el supuesto de que hubiera sido abonada, la devolución de la misma.

LAUGARRENA.- Hitzarmen honetan adierazitakoaren zein beronen sinatzaileek hartutako konpromisoen jarraipen, zaintza eta betearazpenaren kontrola eroateko Jarraipen Batzordea eratuko da. Mekanismo honen bidez argituko dira interpretazio arazoak zein betearazpenaren inguruan sor daitezkeenak.

CUARTA.- Se constituye una Comisión de Seguimiento, como mecanismo de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del presente convenio y de los compromisos adquiridos por las partes firmantes. Este mecanismo, asimismo, resolverá los problemas de interpretación y cumplimiento que puedan plantearse.

Batzordearen osaeran, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 22. artikuluan horretarako ezarritakoa bete beharko da.

En la composición de la Comisión deberá darse cumplimiento a lo establecido a tal efecto por el artículo 22 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Jarraipen Batzordea honakoek osatuko dute:

La Comisión de Seguimiento estará integrada por:

- Batzordeburua: Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Eskola Kirolaren Ataleko burua.

- Presidencia: La persona que ostente la jefatura de la Sección de Deporte Escolar del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia.

- Batzordeburuordea: Federazioko lehendakaria edo honek eskuordetutako pertsona.

- Vicepresidencia: La persona que ostente la presidencia de la federación o persona en quien delegue.

- Kidea: Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko teknikari bat.

- Vocal: Una técnica o técnico del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia.

- Batzordeko idazkaria: Jarraipen batzordeko buruak erabakiko du nor izango den idazkariaren zereginak beteko dituena.

- Secretaría: Realizará las funciones propias de tal cargo quien a tales efectos determine la presidencia de la Comisión de Seguimiento.

Jarraipen Batzordeak ohiko bilera bat egingo du hitzarmena indarrean dagoen bitartean, adostutako jarduketak baloratzeko eta dagokion egiaztapen-akta onartzeko. Egiaztapen-akta horrek hitzarmenaren xede diren jarduketen betetze-maila jasoko du, Hitzarmen honen Hirugarren Klausulako 10. puntuaren memoriarekin bat etorriz, bai eta azken kontraprestazioan egin beharreko doikuntza ere, justifikazio ekonomikoa hitzartutakoa baino txikiagoa bada.

La Comisión de Seguimiento se reunirá de forma ordinaria una vez durante la vigencia del convenio, para valorar las actuaciones acordadas y aprobar la pertinente acta de comprobación. Dicha acta de comprobación recogerá el grado de cumplimiento de las actuaciones objeto del convenio de acuerdo con la memoria de la Cláusula Tercera punto 10 del presente Convenio y el ajuste a realizar en la contraprestación final si la justificación económica fuera menor de lo conveniado.

Halaber, aparteko bilerak egingo ditu kideetatik edozeinek ondore horretarako berariazko deialdia egiten duenean; deialdi hori bidezko bilera egin baino bost egun arinago egin behar da eta bertan bilera horretako aztergaien zerrenda emango da.

Además, se reunirá de forma extraordinaria cuando a tales efectos resulte convocada de forma fehaciente por cualquiera de sus miembros, con cinco días de antelación a la celebración de la correspondiente reunión y consignando el orden del día de la respectiva sesión.

Erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, legez gehiengo kualifikatua behar denean izan ezik.

Los acuerdos se adoptarán por mayoría simple, salvo que legalmente sea necesaria una mayoría cualificada.

Jarraipen Batzordeari buruz Hitzarmenak beren-beregi aurreikusi ez duenerako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluko II. kapituluko 3. atalak arautzen duen kide anitzeko organoen araubide juridikoa aplikatuko da.

En lo no previsto expresamente en el Convenio sobre la Comisión de Seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en la sección 3ª del capítulo II del título preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

BOSGARRENA.- Federazioak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

1.- Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailari laguntzea, hala eskatzen bazaio, eta erakundearen gaineko edozein informazio ematea (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak, etab.).

2.- Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailak, Ogasun eta Finantzen Foru Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituzten egiaztapen-jarduerak onartzea.

3.- Aldez aurretik errekerimendua eginda, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuari ematea Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan aurreikusitako betebeharrak benetan betetzeko beharrezkoa den informazioa, hori guztia Foru Arau horren 2.4 artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz. Era berean, Euskadiko jarduera fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 22. eta 43. artikuluetan ezarritakoa betetzea.

4.- Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan aritzea Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuko 169 artikuluan adierazitakoa betetzeko.

5.- 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzkoaren 48. artikuluak ezarritako betebeharrak betetzea.

SEIGARRENA.- Beste alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du:

1.- Jarduerei buruzko informazioa zabaltzea.

Hirugarren klausulako 4. puntua betetzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak bere irudi korporatiboaren gaineko beharrezko informazioa emango dio federazioari.

ZAZPIGARRENA.- Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiak, hitzarmen honen bitartez, HOGEITA LAU MILA ZORTZIEHUN ETA HAMAZORTZI EURO ETA HIRUROGEITA HAMABOST (24.818,75) ZENTIMOko gehieneko kontraprestazio ekonomikoa emango dio Bizkaiko Golf Federazioari (IFZ: G-48459705). Kontraprestazio hori Jolas Kirolaren 341108 programako 23799 partidaren konturakoa izango da (organikoa: 0403), 2007/0146 proiektua eta era honetan banatuko da:

- 2023. urtekoa: 0,00 €
- 2024. urtekoa: 24.818,75 €

QUINTA.- La Federación se compromete a:

1.- Colaborar con el Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte en aquellos supuestos en que le sea requerido, aportando cualquier tipo de información relativa al ámbito de la entidad (estudios, encuestas, datos estadísticos, etc.).

2.- Someterse a cuantas actuaciones de comprobación efectúen los Departamentos Forales de Euskera, Cultura y Deporte y de Hacienda y Finanzas, así como el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

3.- Previo requerimiento, suministrar al Servicio de Deportes de la Diputación Foral de Bizkaia, la información que sea necesaria para el cumplimiento efectivo por parte de ésta de las obligaciones previstas en la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, todo ello de acuerdo con lo señalado en el artículo 2.4 de esa Norma Foral. Asimismo, se compromete a cumplir con lo establecido en los artículos 22 y 43 de la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco.

4.- Colaborar con la Diputación Foral de Bizkaia en el cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 169 del Decreto 16/2016 de 31 de enero, de las Federaciones Deportivas del País Vasco.

5.- Cumplir con las obligaciones derivadas del art. 48 de la Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio, de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia.

SEXTA.- Por su parte, la Diputación Foral de Bizkaia se compromete a:

1.- Dar difusión a las actividades.

Para el cumplimiento de la Cláusula Tercera, punto 4, la Diputación Foral de Bizkaia facilitará a la Federación la información necesaria sobre su imagen corporativa.

SÉPTIMA.- Así mismo, la Diputación Foral de Bizkaia se compromete a través del presente Convenio con cargo a la partida 23799 del programa 341108 Deporte Recreativo orgánico 0403, proyecto 2007/0146, a aportar una contraprestación económica máxima de VEINTICUATRO MIL OCHOCIENTOS DIECIOCHO EUROS CON SETENTA Y CINCO CÉNTIMOS (24.818,75) a la Federación Vizcaína de Golf, NIF G-48459705, que se distribuirán de la siguiente forma:

- Anualidad 2023: 0,00 €
- Anualidad 2024: 24.818,75 €

Ordaintzeko era hau izango da:

- 2024.urtekoa era honetan ordainduko da:

- Ordainketa bat, % 80koa (19.855,00 €), urteko lehen hiruhilekoan tramitatuko dena.
- Ordainketa bat, % 20koa (4.963,75 €), honako hitzarmen honen Hirugarren Klausularen 10. puntuan aurreikusten diren memoriak aurkezten direnean tramitatuko dena.

Edozein kasutan, aurreikusitako ordainketak dagozkien fakturen onarpenaren ostean tramitatuko dira, behin Kirol Sailaren onarpena jaso ondoren, eta egiaztatu ondoren egunean dagoela zerga eta gizarte segurantzako betebeharretan. Aipatutakoa hala dela egiaztatu ezean, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean egoera erregularizatu dezan, bestela hitzarmen honetan ezarritako kontraprestazio ekonomikoa galduko duelarik.

Federazioak, hitzarmen hau sinatu aurretik, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela adierazten duten ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Hitzarmena betearaztearen ondoriozko gastutzat eta, beraz, alderdiek egindako finantza-ekarpenekin finantzatzeko modutzat jotzen diren gastutzat joko dira hauek: indarrean dagoen araudiarekin bat behar bezala justifikatuta daudenak, hitzarmenaren likidazio-datan ordainduta daudenak, beharrezkoak direnak eta batere zalantzarik gabe bat datozenak lagundutako jardueraren izaerarekin eta hitzarmenaren xedearen garapen normalarekin.

**ZORTZIGARRENA.-** Bizkaiko Golf Federazioak ez badu betetzen lankidetza hitzarmen honetako Bigarren Klausulako 1.a idatz-zatian ezartzen den konpromisoa, HIRUROGEITA HAMALAU EURO ETA HOGEITABOST ZENTIMO (74,25) galduko ditu ikastaroan parte hartzen ez duen ume bakoitzeko.

Bizkaiko Golf Federazioak ez badu betetzen lankidetza hitzarmen honetako Bigarren Klausulako 1.b idatz-zatian ezartzen den konpromisoa, HAMASEI (16) EURO galduko ditu landa-eskolan parte hartzen ez duen eskola-ume bakoitzeko.

La forma de pago será:

- La anualidad de 2024 se abonará de la siguiente manera:

- Un pago, de un 80 % (19.855,00 €), que se tramitará dentro del primer trimestre del año.
- Un pago, de un 20 % (4.963,75 €), que se tramitará una vez presentadas las memorias que se contemplan en la Cláusula Tercera, punto 10, del presente Convenio.

